



Erreforma ala Iraultza reloaded

2019-11-03

[Versión en castellano](#)



Sindikalismoa
ADAM RADOMSKI

Bigarren gerraostea: Ongizate Estatua

Estatuaren auziak berebiziko garrantzia dauka XX. mendeko mugimendu sozialisten baitan: eraistea zen helburua, edota erakundeen boterea lortzea erreformak egin ahal izateko. Auzia oraindik ez da ebatzi, horren adierazle da oraindik batek baino gehiagok bigarren gerraosteko antzeko egoerara itzultzeko aldarria egitea; tartean, talde parlamentarien kopuru oparo batek, gizarte eragileztat ditugunen zati handi batek, langile mugimenduaren azken hondarrek, eta sindikatu gehienek, noski.

Hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, kapitalismoak fase berri bati ekin zion: aurrerapen teknikoei esker, ondasunen ekoizpena hazi egin zen eta masek ondasun horiek kontsumitzeko aukerak zituzten kasurik gehienetan. Horrez gain, lanpostuek eta zerbitzuen sektoreak gora egin zuten, eta sindikatuak azken horietan sartu ziren, ordura arte soilik fabriketara mugatzen zuten beren lan esparrua. Ongizate Estatua ezarri zen, hainbat faktorek ezaugarritu zutena: interbentzionismoa ekonomian, Estatuak lan indarraren erreprodukzioan inbertitzea, edota legedia soziolaborala bat sortzea eta sindikatuak Estatuaren barnean integratzea, faktore haietako zenbait aipatzearren. Lehenago ere mahaigaineratu dugu klase-borrokaren esparruan Estatua neutrotzat hartzearen ideia guztiz okerra dela, kapitalismoaren baitan erabat integratuta baitago. Are gehiago, enpresari nagusienetakoa da, bai behintzat nazio mailan. Eta eskala nazionaleko berrantolaketa izan arren, zentroaren eta periferiaren arteko asimetriak egin zuten posible Ongizate Estatua kapitalismo globalizatuaren politika inperialisten eraginez sortuak.

Sindikatuak dagokienez: gehienak Estatuaren aparatu bilakatu ziren **de facto**, ez baziren zuzenean enpresari akzionista egin, Alemaniako IGG Metall-en kasuan bezala[1]. Are gehiago, Alemaniako legediak gaur egun dio 500 lagunetik gorako enpresek langileen ordezkariak izan behar dituztela zuzendaritzako organoetan[2], Estatua-sindikatuak-Kapitala harremanaren adibide bat jartzearren. Kasu horietan guztietan langileen ordezkariak ordezkatzeko zituzten horien esplotaziotik onura politikoak lortzen zituzten (ematen zaien erabakitze ahalmenagatik), eta baita onura ekonomikoak ere (dibidenduak jasotzen zituztelako, izan beren akzioengatik edota Estatuaren diru-laguntza forman). **Alegia, ez ziren langile mugimenduaren zerbitzura bizi, langile mugimenduaren bizkar baizik.**

Sindikatuaren mugak

Sindikalgintzaren joera guztiek, haustura bilatzen zutenetatik hasi eta erreformistetaraino, **erakundeetan gero eta integratuagoa zegoen lan-harremanen marko batekin** egiten zuten topo. Horrek sindikalgintza antagonistari kontraesanak eragingo zizkion, batez ere iraultza sozialaren zerumuga aurreko hamarkadetan baino urrunago zegoela zirudielako[3], eta beraz, esku-hartzeko aukerak oso mugatuta gelditzen ziren. Ikuspuntu bakegileena zutenentzat, berriz, lan-harremanak erakundeetan integratze hori ez zen arazo izango, sindikatu horiek jada Estatuaren barneko edo harekin harreman zuzena zuten erakundeak baitziren.

Lehenengo Mundu Gerraren aurretik jada argi gelditu zen sindikatuak ez zetozeela beti bat klase borrokarekin, batzuetan **iraultza garaietan langileria mantsotuarazi edota geldiarazteraino**: fabriketako batzordeek gain hartu zieten 1905eko Errusiako iraultzan, eta gerra ondoren, berdin gertatu zen 1919ko Alemanian. Gauza bera gertatu zen langile batzordeekin Italiako Bienio Rosso-ko garaian, esperientzia batzuk aipatzearren. Kasu horietako elementurik interesgarriena da

borroka bizi-baldintzak hobetzeko helburua izatetik ekoizpenaren kontrola lortzeko helburua izatera pasa zela, zentzu politikoa eman zion horrek borrokari, bestela erabat ekonomikoa izango zenari. Dena den, iraultza saiakera horiek ez zirenez behar beste sakondu eta orokortu porrota jasan zuten, eta ez ziren berpiztu 70. hamarkadara arte.

Estatuak zuzentzen du merkatua ala merkatuak zuzentzen du Estatua?

Duela gutxi LABek eta ELAk salatzen zutenez^[4] “ekonomiak goraldia izan arren, langile klasearen egoera ez da hobetu eta krisi garaian egindako murrizketak ez dira leheneratu”. Itxuraz kontraesana dirudien horren (ekonomiak goraldia izateak lan-baldintzak hobetzea ekarri beharko luke) atzean ezkutatzen da gainera datorkigun krisia ulertzeko giltza. Beraz, zergatik “ekonomiaren goraldia” izan arren, ez da “langile klasearen egoera hobetzen”?

Hasteko, Ongizate Estatua erori izana egiturazko arazo baten ondorio da, beraz, horrek ezinezko egiten ditu zenbait hautu politiko. Batetik, bigarren gerraosteko baldintzak eta gaur egungoak ez dira berdinak: orduan, kapital pribatuak zituen negozioak aski ziren kapitala pilatzeko beharra asetzeko, eta errentagarriak ez ziren ekoizpenak Estatuak bere gain har zitzakeen^[5]. Hau da, bien arteko sinkronia bat zegoen. Orain, berriz, nahiz eta ekoizpena (eta esplotazioa) handiagoa izan, **gero eta zailagoa da aipatutako kapitala pilatzeko beharrak asetzea**, ondorioz, ez dago Ongizate Estatuan diru-funtsak galtzen jarduterik. Garai batean Estatuak ekoizpen sistema “gizakion beharren” menpe jarri zuela eman zezakeen arren, helburu nagusia beti izan da onura ekonomikoak lortzea, gertatzen dena da garai hartan itun sozialak ez zuela helburu hura eragozten^[6]. Azken finean, kapitalismoaren zuzendaritza edozein legeditatik kanpo dago, ondorioz sindikatuek ezin dute ezer egin horren aurrean.

Ondorioak

Gure bizi-baldintzak hobetzeko modu eraginkorrean borrokatu nahi badugu, kontuan izan behar dugu kapitalismoa mundu mailako eskalan antolatuta dagoela. Ongizate Estatuaren proiektuak enpresa pribatuei nazioartekotzeko bultzada ekonomikoa eman zien arren, bere eragiteko markoa nazio mailara mugatzen zen, horren ondorio da sindikatuen borrokak ere muga horietan aritzea, batez ere, Estatuaren parte badira. Aldi berean, politika keynesiarren egungo bertsio berritua eskala nazionalera mugatzen da, erabaki benetan garrantzitsuak nazioarteko erakundeetan hartzen direnean, eta horrek beren proiektua ezinezko egiten du. Eta hori gainera kasurik hoberenetan, hau da, ez dutenean proletalgora bere buruaren aurka jartzen (neokeynesianismoaren eskuin hegala, Frantziako FNk ordezkatzeko duena, etab.). Zorionez hasiak gara nazioarteko eskalan antolatutako borrokak ikusten, Amazonen kasua da horren adibide, Alemaniako eta Poloniako langileen arteko koordinazioa egon baitzen borroka horretan.

Ongizate Estatuaren gainbeherak gizarteko gero eta kapa gehiagoren proletarizazioa dakar. Aldi berean, lan-merkatua ez dago jada bateratua, gerraostean bezala, orain enpresa beraren baitan lan indar kualifikatua^[7], enpresak berak bermatutako gizarte-segurantzarekin^[8], eta maila baxuagoko lan indarra topa daitezke, ezegonkorra eta lan-baldintzei dagokienez berme gutxirekin. Egoera horretan, berebiziko erronka da azken sektore horiengana iristea, askotan askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen bitartez kontratatutak izaten dira (ETTen bilakaera), eta “pribilegiatuen ondoan dihardute lanean, baina haien pribilegiarik gabe”^[9].

Proposatzen den keynesianismoaren itzulerak, sindikatuetatik ere proposatzen dena, **kapitalismoaren legeen okerreko ulerkera bat** du oinarrian, eta nahikoa arrazoi da hori Estatuaren aparatuetan integratutako sindikatuetan ekintza sustatzeari uko egiteko, gainera, soluzioak kapitalismoaren eremu ideologikoan eta praktikoan proposatzeak **haustura-pentsamoldea** garatzea oztopatzen digulako ere. Sindikalgintza borrokalariari dagokionez, zama ideologiko hori gainetik kendu beharko luke lehenbailehen. Edozein modutan, gure bizi-baldintzen alde borrokatzea ezinbestekoa da kapitalismoarekin amaitzeko eta klase sozialak

desagertzeko, eta horretarako finean kapitalismoa betikotzea dakarten ikuskeretatik bereizi behar gara; Ongizate Estatuak gizarte-laguntza eskaintzen digu, hala da, eta horren desagerpena hondamendia litzateke, baina atzera bueltarik gabeko prozesu bat dago martxan, eta horregatik horren arabera antolatatu beharra dago.

GOMENDIOAK

Bieno Rosso-ko, Errusiako edota Alemaniako langile kontseiluen eta fabriketako batzordeen esperientziez jakiteko Dario Azzellini eta Immanuel Ness-en ***"Poder Obrero: autogestión y control obrero desde La Comuna hasta el presente"*** kontsultatzea gomendatzen dut.

Corsino Vela-k oso ongi azaltzen du Ongizate Estatuaren gainbehera ***"Capitalismo terminal. Anotaciones a la sociedad implosiva"***-ren 6. kapitulan (***"Quiebra del Estado de bienestar"***). Horrez gain, ***"La sociedad implosiva"*** bere beste liburuko 6. kapitulua (***"La izquierda del capital"***) kontsultatzea ere gomendatzen dut.

Gai beraz ari diren beste bi autore dira Rosa Luxemburgo ***"Reforma o Revolución"*** liburuko ***"El desarrollo económico y el socialismo"*** kapitulan eta Paul Mattick ***"Marx y Keynes"***-en.

[1]Metalgintzaren sektoreko sindikatu erraldoi bat, automobilgintzaren sektoreko enpresa garrantzitsuetan akzioak dituen, Volkswagen enpresa tartean.

[2]***Mitbestimmung*** (kudeaketan parte-hartze). Eredu hori beste herrialde batzuetara ere zabalduta da: Austria, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Luxenburgo, Holanda, Suedia edo Norvegia.

[3]Bestalde, garatu gabeko herrialdeetan, Urriko Iraultzaren eraginez, sindikatuak korrante iraultzaileetara batu ziren, eta zenbaitetan iraultza sozialistetan edo antikolonialistetan parte hartu zuten.

[4]<http://ahotsa.info/edukia/ela-y-lab-defienden-la-huelga-como-un-paso-para-los-recuperar-derechos-perdidos-y-revertir-los-recortes-de-la-crisis-1>

[5]Nazionalizatu ere egin zitezkeen, Alderdi Laborista ingelesak egin zuen moduan.

[6]Noski, mende hasierako olatu iraultzaileek eta garaiko gizarte gatazka indartsuek ere asko eragin zuten. Orain urrun gaude egoera hartatik.

[7]Ez ikasketengatik soilik, baita enpresan denbora luzez aritzeagatik ere.

[8]Hau da, berez estatuarenak diren gizarte-laguntzak beren gain hartzen dituzte.

[9]Marco Revelli ***"8 tesis del posfordismo"***